


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZER

365n. zenbakia • 2010 Zemendia



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Baserria



Bakioko
Toponimia-II



Lekeition iru errikoseme
ospetsuei goratzarrea

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2

urrutizkiña 423 53 22

Bilbao

Asiera: urriaren 11an

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2

Teléfono 423 53 22

Bilbao

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com



Bakioko Toponimia-II

Egindako bearraren
emoitza-argibide batzuk.

A.- Soziolinguistika arlokoak:

Gizaldietan ostenduz joan jakuz leku-izen istorikoak, izkuntzearen barruko ordezkatzeko prozesua dala-eta: **San Juan/Gaztelugatxe, San Migel/Zumetzaga, ...**

Administrazio eta ezkuntza erdaldunaren eragin sakona. Gaur eguneko euskaldunen kulturen izen ofizialak erderazkoan esateraginokoa, euren erriko berbetan eta oiko artuemonetan beste era batera, euskeraz, entzun, esan eta erabili arren: **súbidxorre / Zubiaur ...** Abizenak bardin ebatzen dabez: Larrazabal, Ormazza, Zugazaga, ...

Toponimoak zein antroponimoak ebateko era ori jasoago eta jatorragotzat dauke, betiko ebakerea ostera, euskerearena atan be, askok baseritarkeria eta arlotekeriartzat emoten dabe.

Ezin dogu aaztu be, urtean-urtean milazak kanpotarrak joaten dirana Bakiora, udan batez be. Kanpotar orreek, geienak, erdaldunak dira eta euren oitura fonologikoak erabilten dabez Bakioko lekuizenak esaterakoan. Ori luzetara igarri egiten da eta egin egin da daborduko. Eurok euskaldunak izanda be,

nekez jakiten dabe zeintzuk diran izenen jatorrizko azentuerea eta akoskerea, erderearen arau fonologiko arrotzak erabilten dabezalako:

Báquio → *bakidxó* / **Bakio**

Leku-izen asko dira etxekoen artean erabilteko modukoak, bigarren mailako toponimotzat artuten dabez, eskrituretan beste izen bat dakarrela. Agirietan agertuten diran izenak eta etxean erabilten diranak askotan, bada, ez datoz bat (soloak, basoak). Izen barriak, erosoagoak, erabilten dabez. Zaarragoak eta benetakoak, eurok jakin arren be, baztertuta, aaztuta, galduta lotuten dira (paperetako leku-izenak inoz agozkoak be izan dira, zaarragoak):

tionikolasen soloá

sarrátu/mungíleta (Ormatzako Migelen aitak)

Toponimo asko mugatuak dira, paperetan zaarreak, eta gaur egun, agozko erabilkeran, mugabakoan erabilten dira.

Zer dala eta galdu da “-a” artikulua mugatzailearen betekizuna?:

Bazterretxea / <i>bastérretze</i>	Beitia / <i>beitxí</i>
Bengouria / <i>bengúri</i>	Etxebarria / <i>etzébarri</i>
Goikoetxea / <i>goiketxé</i>	Goikolea / <i>goikolá</i>
Goitia / <i>goitxí</i>	Zaitua / <i>saitxú ...</i>

“-a” artikulu mugatzailea agertuten da beste askotan be, solo eta basoen izenetan, batez be. Baina badira izen orreek benetako toponimoak ala etxean erabilteko deitura utsak? Non dago bien arteko mugea?

Goikosolo / Goiko soloa
Solotxiki / Solo txikerra ...

Oikonimia: Etxeen izenetan egon da benetako ordezkatzeari, benetako izenak ostuta eta ezezagun lotu dirala. Gure uste apalean, fenomeno au 100 urterik onantzakoa da. Erriko etxe asko euroi ezizena iminita izendatuak izan dira azken 150 urteotan. Eta orretarako “-ENE/-ENA” atzizkia erabilten izan da (normalean, etxeko biztanleren baten izen edota ezizenetik eratorritako etxe-izenak dira):

Alardone / Aurrekoetxea
Galone / Mintegigoikoa
Gerekane / Larraskoagagoikoa
Indxarrane / Larraskoaga
Panadiene / Errotatxu
Patxuelene / Bekoetxe ...

Ez danak (benetakoak, oso zaarrak diralako): **Gortena/Kortateta, Muxikena, Zaituena, Ostiena/Ostiga, ...**

Beste batzuetan, ostera:

Bastei / Luzarragoikoa	Larrondo / Larrazabala
Martinetzea / Urizarreta	Martinpoda / Garaietxe
Sandxoalde / Erkoreka	Euntzerri / San Pelaio
...	

Erriko toponimia/antroponimia. Erritar askoren abizenak erriko etxeen toponimiagaz bat egiten dabe. Batzuetan, etxearena eta etxekoen abizena izen bera izaten da, orain dala 300 urte oikoa zana: **Agirre, Altzaga, Artetxe, Azeretxo, Barturen, Benguria, Elexpuru, Erkoreka, Errenteria, Gabantxo, Garai, Gaubeka, Goitia, Jauregizar, Larragan, Olazar, Ormatza, Ugalde, Uriarte, Zabala, ...**

Leku-izen Istorikoak (Muxika zein Butroi etxe-koak oinaztarrak ziran, alantxe izan zan Bakio be): **Butroetxe, Muxikena, ...**

Toponimo zaarrak/toponimo barriak. Leku-izenik geienak Erdi Arokoak ei dira. Zeintzuk dira zaarrenak? Normalean, mendi, inguru andi, erreka eta etxe zaarren izenak,

beste batzuen artean. Barrienak, ostera, soloen izenak izaten dira. Toponimo zaarren artean: **Amutzaga, Armurua, Azeretxo, Bakio, Basigo, Barturen, Erkoreka, Garrakola, Gaubeka, Jata, Minitua, Zarratxo, Zeuba, Zumusu, ...** Toponimo barrien artean: **Arbebaso, Erdikoetxe, Garaisolo, Iparragirre, Lurbarria, Makuena, Solobarri, ...**

(-AGA/-ETA; -TI/-DI Urezanti/Urezandi)

Esangura ezezaguna/iluna dauken leku-izenak (leku-izenik zaarrenak, aurki): **Amutzaga, Andio, Andiño, Armurua, Armuki, Azeretxo, Bakio, Basigo, Barturen, Burdingotza, Erkoreka, Gabantxo, Garrakola, Gaubeka, Gorozoa, Izuntza, Jata, Minitua, Zeuba, Zeukidi, Zumusu (Zubimusu?), ...**

Ingurune andietan, bakotzak izena euki badauka be, euren barruan dagozan solo edota basoak be, bakotzak izena eukiten dau: **Amundegi / amúndi, Anbieta, Luarreta, Bidetxalde, Idarra, ...**

Orain dala 100 urtera arte, XIX. gizaldian (karlistaden ondorioz) batez be, Euskalerriko beste leku batzuetatik artzain etorri ziran lagun asko gure alderdira (gipuzkoar eta naparrak): **Ansorregi, Armendaritz, Erauzkin, Imatz, Iturain, Lasa, Sasiain, ...** Ze eragin euki dabe eurok Bakioko berbetan? Eta erriko toponimian?

B - Erriko berbetearen ezaugarri toponimiko batzuk:

Euskalkiaren ezaugarri orokorrak: -aga, baltz, barren, barri, bedar, burdi, -dui, eleiz, gan/gana, gorta, aretx/aritx, idar, iko, leizar, mustur, solo, toki, txarri, -txu, -tza, uri, zilo, ...

Izkuntza berezitasunak:

saila/sail (Saillaluze / txorisail, ...)
zulo/zilo (Lukizillo, Txakurzulo, ...)

Berba fosilizatuak toponimian: **Aldapa** (aldapa/al-dats-sin.), **Belategi** (bele/erroi-sin.), **Ibarra** (ibar/vega-erd.), **Lorrekoibi** (ibi/Ø-gal.), **Nazape** (naza/urbide-sin.), **Usategi** (uso/paloma-erd.), **Zintadui** (zinta/Ø-gal.) ...

Beste euskalkien eraginak (Gipuzkoa eta Nafarroako artzainak): **Aldapa/Aldatsa, Lurberri/Lurbarri, ...**

Agoskerea:

Toponimia atzizki batzuen agoskerea Bakioko euskeran:

-AGA/A(+azentua), -IA/IDXE (+azentua):

Karabiaga / *karábia*
 Karabia / *kárabidxe*
 Altzaga / *áltza*
 Amutzaga / *amútzza*
 Areaga / *aríá*
 Eitzaga / *éitza*
 Idarra / *idérra*
 Luzarraga / *lúsarra*
 Oiaga / *óidxa*
 Osinaga / *usiña*
 Piperraga / *pípérra*
 Pozuaga / *pósoa*
 Txikoarriaga / *txikoarrídxá ...*

-ALDAI: Aldai / *áldei*
 Faraldai / *fáraldei*
 Mendialdai / *mendiálde ...*

-TEGI/-TEI: Bastegi / *bastéi*
 Belategi / *bélatei*
 Garategi / *gáratei*
 Otsategi / *otzatéi*
 Pipertegi / *pípertei*
 Usategi / *úsatei ...*

-DUI/-DI: Arextui / *Arexti ...*

-ONA atzizkidun leku-izenak (etxeak):

Besondona / *besondá*
 Gorrondona / *gorrondá*

“J”-ren agoskerea: dxéurisarre / *Jauregizarra*
 dxatá / *Jata*
 dxéuri / *Jauregi*
 dxolapitxiñé / *Joanlopetxena*
 sandxoanálde / *Sanjoanalde ...*

Leku-izen asko, agozkoagaitik, jatorrizko izenetik itxuragetuta eldu dira gure egunotara arte. Orretan azpieuskalkiaren arau fonetiko-fonologikoak garrantzi andia euki dabe. Sarritan, agiri zaarretan gorde dira jatorrizko izenak. Esate baterako:

Zintadui → *sintxedui* → *sintxedi* → *sintxeri* → *sintxíri*
 Mintegi → *mintxegi* → *mintxeri* → *mintxíri*

Azentua:

bakidxó (Bakio), *údxerte/udxerté* (Uriarte), *dxatá* (Jata), *bélatei* (Belategi), *kárabidxe* (Karabia), ...

Atzizki aurreazentuatzaileak (-AGA, -TEGI, -TXU):

<u>Idarra</u> / <i>idérra</i>	<u>Luzarra</u> / <i>lúsarra</i>
<u>Belate</u> / <i>bélatei</i>	<u>Usate</u> / <i>úsatei</i>
<u>Garaitxu</u> / <i>gáraitxu</i>	<u>Zaitutxu</u> / <i>saitxútxu</i>

Beste batzuk eurak batuten dabe azentua (-ÁLDE), atzizki azentubatzaileak:

Mendialde / *mendiálde*
Etzebarrialde / *etzebarriálde*

(azentuaren barri zeatazgo jakiteko, ikusi 7. atala)

Toponimian agertuten diran atzizkiak:

-a (artikulu mugatzailea): Karabia, Bengolea, ...
 -aga (ugaritasuna): Piperraga, Ametzaga, Oiaga, ...
 -d(u)i/-t(u)i (ugaritasuna): Sagardi, Amezti, Arextui,..
 -eka (bakartasuna): Erkoreka, Gaubeka, ...
 -ena (etxea): Muxikena, Ostiena, ...
 -eta (ugaritasuna): Elorrieta, Otandieta, ...
 -ika (ark.): Ø
 -i(t)z (izen propiotik): Baratiz, ...
 -kada (ugaritasuna): Saillakada, Axkada, ...
 -ko (nongo): Aldekoa, Zarrakoa, ...
 -ola (ugaritasuna): Garrakola, ...
 -pe/-be (beean): Nazape, ...
 -tegi (lekua): Usategi, Pipertegi, ...
 -tsu (ugaritasuna): Urtsu, ...
 -txu (txikitasuna): Zaitutxu, Garaitxu, ...
 -tza/-za (ugaritasuna): Urkitza, Maillukitza, ...
 -zu (ugaritasuna): Ø

Izenetik eratorritako atzizki edo aurrizkiak (zer/non):

-aldai: Mendialdai, Faraldai, ...
 -alde: Txirrikalde, Artzalde, ...
 -baso: Erlebaso, Urkitzabaso, ...
 -bide: Trabesbide, Andiñobide, ...
 -bizkar: Solobizkarra, Landatxubizkarra, ...
 -erreka: Matxaerreka, Ustaerreka, ...
 -errota: Bekoerrota, Azeretxokoerrota, ...
 -etxe: Artetxe, Bekoetxe, ...
 -ezkina: Errekaezkiña, ...

- gan(a): Koplagona, Larragan, ...
- garai: Ibaigarai, ...
- arri: Munarri, Potorroarri, ...
- atx: Lukiata, Itsastxoriatxa, ...
- erri: Auntzerri, ...
- ibi: Arextuibi, Lorrekoibi, ...
- iturri: Ametzagaiturri, Kandelaiturri, ...
- landa: Birjilanda, Andiñolanda, ...
- larra: Otalarra, ...
- leku: Orbeleku, Lapaleku, ...
- lur: Lapikolurra, ...
- mendi: Jatamendi, Gaubietamendi, ...
- muna: Basamuna, Txitxirritamuna, ...
- mustur: Idimusturra, Irumusturra, ...
- ola: Goikolea, Bengolea, ...
- ortu: Goikortu, Mariortu, ...
- potongo: Buruzkoen potongoa, ...
- sakon: Gazadiko sakona, Idarragako sakona, ...
- solo: Zubisol, Uribesolo, ...
- toki: Abioren tokia, ...
- torre: Amantorre, ...
- uri: Bengouria, ...
- zilo/zulo: Atxulo, Lukizillo, ...
- alde: Errekalde, Iturrialde, ...
- albo: Etxalboa, ...
- arte: Uriarte, Errekarte, ...
- atze: Mintuatze, Suteatze, ...
- aurre: Ibillaurre, Urkitzaurre, ...
- azpi: Etxeazpi, Elorrietazpi, ...
- barren: Solobarrena, Andiñobarrena, ...
- barru: Esparrua, Gazparrua, ...
- beeko: Uribarribekoa, Ibarrabekoa, ...
- be/-pe: Uribe, Birjilandape, ...
- buru: Arbeburu, Elexpuru, ...
- goien: Ormagoiena, Etxegoiena, ...
- goiko: Ortubegoikoa, Ugartegoikoa, ...
- goiti: Azeretxogoitia, Larraskoagagoitia, ...
- guren: Mendiguren, Ibarguren, ...
- ondo: Zubiondo, Kontxaondo, ...
- aurre-: Aurrekosolo, Aurrekoetxea, ...
- barru-: Barrukosolo, ...
- beeko-: Bengolea, Bekoerrota, ...
- erdi-: Erdikosolo, Erdikobenta, ...
- goien-: Goienburu, Goienetxea, ...
- goiko-: Goikolanda, Goikosolo, ...
- goiti-: Goitipe, Goitisol, ...
- andiko- (adb.): Andikoetxea, Andikosolo, ...
- argi-: Argilla, ...
- baso-: Basarte, Basigo, ...
- bazter-: Bazterretxea, ...
- benta-: Bentabarri, Bentazar, ...
- bide-: Bidezarreta, Bidezabal, ...
- bizkar-: Bizkarreko soloa, ...
- bolin-: Bolintxu, ...
- burdi-: Burpidieta, ...
- buztin-: Buztindi, Buztiñasolo, ...
- eleiz-: Elexalde, Elexpuru, ...
- ermita-: Ermitondo, Ermitaurre, ...
- errika-: Errekondo, Errekalde, ...
- errot-: Errotabarri, Errotatxu, ...
- etxe-: Etxegorri, Etxeburu, ...
- gan-: Ganbiribilla, Gantxu, ...
- garai-: Garaikoetxea, Garaitxu, ...
- gatz-: Gaziturri, Gazadi, ...
- gorta-: Gortena, ...
- aize-: Aixederra, Aixeta, ...
- are-: Aremuna, Arietxe, ...
- arri-: Arbe, Arkotxa, ...
- atx-: Axnabarra, Atxategi, ...
- egi-: Egiaetxebarri, ...
- erri-: Errialde, Erripe, ...
- orma-: Ormatza, Ormazarreta, ...
- ibai-: Ibaigane, Ibaiondo, ...
- ibar-: Ibartxueta, Ibarrondo, ...
- iturri-: Iturrialde, Iturritxu, ...
- karabi-: Karabizarra, Karabialde, ...
- koba-: Koba, Kobarte, ...
- korta-: Kortaeta, ...
- kukutz-: Kukutza, ...
- kurutze-: Kurutzederro, Kurutzeko atxa, ...
- laba-: Labaondo, Labatzeko soloa, ...
- landa-: Landabaso, Landabarrena, ...
- larra-: Larrabe, Larrondo, ...
- lur-: Lurgorri, Lurbarri, ...
- mendi-: Mendialde, Mendiguren, ...
- muna-: Munaondo, Munarri, ...
- naza-: Nazape, ...
- ola-: Olalde, Olatxu, ...
- ortu-: Ortube, Ortukalde, ...
- osin-: Osinaga, ...
- palatu-: Palatuondo, Palatugana, ...
- patin-: Patiña, Patiñeko soloa, ...
- portu-: Portukosolo, Portuondo, ...
- pozu-: Pozuilluna, Pozuaga, ...
- saila-: Saillaluze, Saillamakurra, ...
- solo-: Soloburu, Solobarrunagusi, ...
- suerte-: Suertetxikerra, ...
- taberna-: Tabernazarra, Tabernatxu, ...

teila-: Teillaluze, Teilleria, ...
 torre-: Torrezarra, Torreaurreta, ...
 tuntur-: Txuntxurra, ...
 ur-: Urgitxi, Urgura, ...
 uri-: Uriarte, Uribe, ...
 zelai-: Zelaiederreta, ...
 zubi-: Zubiaurre, Zubieta, ...

aume-: Aumerreka, ...
 auntz-: Auntzerri, ...
 ardi-: Artetxe, ...
 bazpi-: Bazpibasoa, ...
 bele-: Belategi, Beleta, ...
 buruzko-: Buruzkoen potongoa, ...
 eper-: Epersolo, ...
 erle-: Erlebaso, Erlieta, ...
 euli-: Eulisolu, ...
 atxarrano-: Atxanarrobaso, ...
 idi-: Idimusturra, ...
 itsaspotorro-: Itxaspotorroatxa, ...
 itsastxori-: Itxastxoriatxa, ...
 lapa-: Lapalekua, ...
 luki-: Lukiatxa, Lukizillo, ...
 muxarra-: Muxarratxa, ...
 otso-: Otsategi, Otsategitxu, ...
 potorro-: Potorroarri, Potorroatxa, ...
 txakur-: Txakurzulo, ...
 txarri-: Txarrisolu, ...
 uso-: Usategi, Usobekoa, ...

Adjektiboetatik eratorritako atziki eta aurrizkiak (zelangoa):

-bakar: Arixbakarra, ...
 -baltz: Ikobaltzaga, Zubibaltza, ...
 -barri: Etxebarri, Egiaetxebarri, ...
 -biribil: Saillabiribil, Axbiribilla, ...
 -eder: Zelaiederrak, Aixederra, ...
 -gorri: Etxegorri, Lurgorri, ...
 -andi: Atxandia, Maastegiandia, ...
 -ilun: Pozuilluna, ...
 -laban: Arrilabana, ...
 -luze: Landaluze, Saillaluze, ...
 -makur: Saillamakurra, ...
 -motz: Axmotz, ...
 -nabar: Axnabarra, ...
 -nagusi: Solonagusi, Axnagusia, ...
 -on: Larraona, ...
 -oker: Atxokerra, ...
 -txiki: Solobarrutxiki, Atxagatxiki, ...

-sakon: Subiltegisakona, Zabalsakona, ...
 -zabal: Solozabala, Larrazabala, ...
 -zaar: Torrezarra, Jauregizarra, ...
 -zuri: Etxezuria, Zurtzuri, ...

argal-: Argalbaso, ...
 eder-: Ederiturri, ...
 gorri-: Gorri-gorri, ...
 matxar-: Matxaerreka, ...
 txatxar-: Txatxaerreka, Txatxarre, ...
 zabal-: Zabalsolu, Zabalondo, ...
 zear-: Zearratxa, ...

Toponimiagaz zerikusia dauan batutako lexikoa (espazio geografikoa):

abadetxe, abaro, adar-erreka, aldapa, aldats, alde, alderdi, aldetxe, alborabide, andabide, andapara, argi, arlo, arkupe, arro, artezbide, aurbeera, auzo, auzodi, auzune, barren, basatza, baserri, baso, basobide, bazter, bedarleku, bedartza, benta, beresi, bestalde, bide, bidekurutze, bidezidor, bizitza, bizkar, bolaleku, bolatoki, bolin, botxo, burdibide/burpide, burre, buztin, buztindi, buztingorri, eguzkibegi, erreka, erreka-mustur, eleiz, ermita, erreka, errekarte, errekatxu, erromara/erromada, errota, ertz, estrata/estratza, etxalde, etxe, etxeatze, etxeburu, ezkina, galtzada, gane/gan, garai, gerizpeleku, goi, gorta/korta, are, aremune, aretza, arkidi, arri, arribola, arrixingor, atx, atxarte, atxulo, egi, erri, erribaso, erribide, orma, ibai, ibar, ibi, igeltseri, ikazleku, inguru, iraleku, itsaso, iturri, jauregi, kale, kantoi, karabi, karatx, koba, kontrasol, kukutz, kurutze, kurutzederu, laba, landa, lantzar, larra, lauune, leixibaleku, leixibarri, leku, leunada, leunune, leza, lezazulo, lorrintza, lupetza, lur, lurbarri, lurbeera, maila, mendi, mintegi, montor, mota, munarri, muna, mustur, naza, oinatz, oinbide, oinezbide, oinezko bide, ola, ortu, osin, palatu, patin, pika, portu, potongo, potxingo, pozu, presa, saila, saka, sakaste, sakon, sakondi, sakonune, sakosta, sasiarte, sastegi, sastraka, solo, suerte, taberna, teila, toki, tontor/tuntur, torre, troka, txabola, unada, unekada, urbide/ubide, uri, uriauzo, urlotu, urune, urzabal, zarratu, zatarri, zelai, zidor, ziikintzi, ziikizti, ziikiztiune, ziipilo, ziiporra, ziipotzi, ziipuzti, ziitzeri, zilo/zulo, zordanbide, zordunbide, zotazal, zubi, ...

Fitonimoakaz zerikusia dauan batutako lexikoa (fitotoponimoak):

arantzadi, artedi, gaztainadi/gaztainari, gurbiztidi, altzadi, otadi, pinudi, sagardi, urkidi, ziidui/ziitza-di, zintadui/zintxiri, ...

amezti, gisasti, gorosti/gorostoi, gurbizti, arexti/arextui/arixti, maasti, sagasti, ziikizti, ziipuzti, ...

gorostei/gorostegi, gurbiztei/gurbiztegi, arixtei/arixtegi, maastei/maastegi, maustegi, mintei/min-tegi, ...

eitza/iitza, idartza, gaztaiñatza, mailukitza, mintza, pagatza, urkitza, ziitza, zumetza, ...

ametzaga, amutzaga, eitzaga, elorreaga/elorriaga, gorostiaga, altzaga, idarraga, ikobaltzaga, intxaurraga, luzarraga, oeaga, piperraga, sagarraga, sarsaga, urkitzaga, zarraga, zumetzaga, ...

ametzeta, aritxeta, elorrieta/elorreta, gaztaineta, iraeta, leizarreta, sagarreta, zumarreta, zuzuneta, ...

ametz, amu, arantza, arkazi, arte, atxiko, azkar, bedar, beresi, elor/elorri, gaztain, ginarra, gisats, gorosti, gurbiza, altz, aretx/aritx, idar, ii, iko, ikobaltz, intxaur, ira, kainabera, laranja, leizar/luzar, maats, mailuki, makatz, maus, mimen, min, oe, okaran, orbel, ota, otabar, pago, pinu, piper, sagar, sagats/sarats, sasi, sekulabedar, urki, urretx, zarra, zii/ziipor, zil, zinta, zugatz, zumar, zume, zurtzuri, zuzun, ...

Oronimoak (lurraren gorabeherak eragindako leku-izenak):

Aldapa, Arbaillo, Arbe, Areaga, Areagakolanda, Aremuna, Arezabal, Arkotxa, Arriagane, Arri-labanaga, Arriluze, Arroa, Artetxelandia, Artza, Atxaga, Atxarteak, Atxulo, Axbiribilla, Basaguren, Basamuna, Basarte, Basotxuaga, Bedartzako sakona, Buztindi, Errekalde, Errekaondo, Ganbieta, Ganbiribilla, Ganeta, Ibarra, Ibarreta, Ibarrondo, Ibartxueta, Iturrialde, Iturriondo, Landatxubizkarra, Landeta, Larramendi, Larranona, Larraskoaga, Longa, Lorrekoibi, Luarreta, Lukizillo, Lurgorri, Mendialde, Mendibiribilla, Mendiguren, Mota, Munaondo, Munarri, Sakona, Sokatxa, Tiromuna, Txikoarriaga, Txuntxurra, Udondo, Ugalde, Ugarte, Urkuillu, Zabala, Zabalondo, Zearrantxa, Zelaia, ...

Idronimoak (uragaz zerikusia dauken leku-izenak):

Arterreka, Aumerreka, Errekatzu, Gaziturri, Iturriaga, Iturribarri, Iturritxu, Kandelaiturri, Lorrekoibi, Matxaerreka, Osinaga, Pozuaga, Txatxaerreka, Udondo, Ugalde, Ugarte, Urbieta, Uradariona, Urazandi, Ureta, Urgitxi, Urgorri, Urgura, Urzabal, Ustaerreka, ...

Fitotoponimoak (landarakaz zerikusia dauken leku-izenak):

Altzaga, Ametzaga, Ametzeta, Amezti, Amezti-barrena, Amutzaga, Arantzadi, Ardantza, Arexti/Arextui, Arextitxu, Aritxamieta, Aritxeta, Aribakarra, Arixpe, Arixpeta, Arixtegi, Arixtondo, Artzillaga, Artatxu, Artzilla, Azkarreta, Eitzaga, Elorrieta, Elorritxu, Gaztaiñadi, Gaztaiñalde, Gaztaiñatxueta, Gaztaiñatzarreta, Gisasti, Gokomaasti, Gorostiaga, Gurbizondo, Idarraga, Intxaurraga, Ikobaltzaga, Irabiengorrieta, Iraeta, Iraleku, Iramieta, Iruaretxeta, Leizarreta, Elorreaga (Lorréa), Luzarraga, Maastegia, Maillukitza, Makatza, Mimenarte, Mimenondo, Mintegi, Mintzazarra, Miruotabarri, Oiaga, Okarantxueta, Otararra, Otandieta, Otazadi, Pagatza, Piperraga, Piñupe, Sagardi, Sagarraga, Sagarreta, Sarsatsaga, Urkidi, Urkitza, Urkitzaga, Urkitzaurre, Urrezilla, Zarraga, Zarrakoa, Zarratxo, Ziaal-de, Ziitza, Zintadui (Sintxiri), Zumarretako landea, Zumetzaga, Zurtzuri, ...

Zootoponimoak (abereakaz zerikusia dauken leku-izenak):

Artetxe, Atxanarrobaso, Aumerreka, Belategi, Beleta, Erlebaso, Erlieta, Idimusturra, Itxaspotorroatxa, Itxastxoriatxa, Lapalekua, Lukiata, Lukizillo, Mandabide, Miruotabarri, Muxarratxa, Otsategi, Otsategitxu, Potorroarri, Sardiñaiturri, Txakurzulo, Txarrisolo, Txorietxe, Usategi, ...

Odonimoak edo komunikazionagaz lotutako leku-izenak:

Aldai, Andiñobide, Arextuibi, Aritxetako zubia, Aterriko mailak, Benta, Bentabarri, Bentaurre, Bentazar, Bidegana, Bideganekoa, Bidekurtzio, Bidekerreta, Bidetxe, Bidezabal, Bidezarreta, Burpiedieta, Erdikobenta, Faraldai, Karabizarre-

ko zubia, Kurtziperioko mailak, Lapikolurreko mailak, Larraziñako bidea, Lorrekoibi, Mandabide, Portuondo, Trabesbide, Zubiaurre, Zubibaltza, Zubibarri, Zubieta, Zubiondo, Zumusu/Zubimusu, ...

Lurgintzeagaz zerikusia daukenak:

Andikosolo, Ardantza, Aretzasolo, Aurrekosolo, Barrukosolo, Bedartzako sakona, Bekortu, Bekosolo, Erdikosolo, Esparragea, Etxeaurrekosolo, Garategi, Goikomaasti, Goikosolo, Goitisol, Gortaeta/Kortaeta, Ikobaltzaga, Karabia, Karabizarra, Landaluze, Larragan, Larraona, Larraoneta, Larraskoaga, Larrondo, Lurbarri, Lurgorri, Maastegia, Mintegi, Munarri, Ogietalde, Ortua, Ortube, Ortuondo, Ortutxu, Otarra, Palatugana, Palatuondo, Piperraga, Portukosolo, Saillaluze, Solobarrena, Solobarri, Solobarrunagusi, Solobarrutxiki, Solobiribil, Solobizkarra, Soloburu, Sololuze, Solonagusi, Solotxiki, Solotxu, Solozarra, Suertetxikerra, Urkuillu, Zabalsolo, Zarratua, Zelaia, ...

Antrotoponimoak edo pertsonakaz (izen, abizen edo ezizenak) lotutako leku-izenak:

Abadetxea, Abadesolo, Abioren tokia, Aititasolo, Alardone, Alkortane, Amamasolo, Andramarieta, Andramarietazpi, Antonsolo, Atsosolo, Balentinatxa, Barberurenkurutze, Bartolosolo,

Batxibaso, Benguriena, Birjilanda, Birjilandape, Bixentesolo, Butroetxe, Dukebaso, Elbiraetxe, Felipane, Frailatxa, Fulgensoloa, Gatikena, Gerrekane, Gortena, Indarrena, Iparragirre, Joanlopetxena, Katxoena, Kontxaondo, Kristoren oiñatza, Luisena, Luisenarixti, Makuena, Maribarri, Mariortu, Markes-solo, Martinlanda, Matxinbaso, Morroskona, Muxikena, Ostiena, Patxosolo, Patxuelena, Paulogorriena, Perdiotxena, Petramuna, Pilarsolo, Sakristauetxe, Santiena, Sotaren basoak, Tioluisen soloa, Tionikolasen soloa, ...

Agiotoponimoak edo santuen izenakaz zerikusia dauken leku-izenak:

Andramarieta (etxea), Basigoko Andramari (eleizea), Birjilanda (ingurua), Birjilandape (itsasoko atxak), Birjinetxe, Gaztelugatxeko San Joan (baseleizea), Gibelortzagako San Pelaio (auzoa eta eleizea), Jandonemartin (sola), Jandonemartinalde (ingurua), Kristoren oiñatza, Kurtzeperioko mailak, San Esteban (baseleizea), San Kristobal (baseleizea), San Martin (baseleizea), Sanmartin-solo, Sanjoanalde (ingurua), Sanjoanalde (etxea), Santa Katalina (baseleizea), Santa Katalalinako zubia, Santa Ursula (baseleizea), Zumatxagako San Migel (baseleizea), ...

Iniaki MARTIARTU
2010eko jorrraila



Lekeition iru errikoseme ospetsuei goratzarrea



San Pedro, "arrantzaleen" -Zaindari jaia dala ta, Lekeitioko Udaletxeak azken bi urteotan omendu nai izan dauz gure erri kultura arloan zelanbaitean nabaritu diran erriko seme batzuk. Kultura aitatuaz, orokorrean, esan nai dot erriak ainbat gauza bai langintzan, erlijiojotasunean, jai giroan, istorian, literaturan, edertian, kiroletan... osotua eta eurekaz adierazoten deuskuna.

Ain zuzen be, San Pedroren jai onetan erri ta erlijio arteko gertakizun bi doguz "kilinkala" ta "kaxarranka" lez ezagutuak. Bata ta besteak erriko bizitza agertuten deuskue. Lenengoa erlijio arlokoa dogu. Baña bere eduki ta esangurean sakondu aurretik, gure neuke, au irakurten dabenak, gogoratu dagiela urte batzuk atzerago Lekeitioko portuan urartean-itsasoan, lur-beso bi, peninsula antzekoak egoazala. Meza Nagusiaren ostean, Santuaren irudia eroaten zan nasatik zear lur-mutur baten ondoraño eta ure (itsasoa) bedeinkatuten zan irudia bein eskumara ta bein eskerrerantza makurtuz edo kilin-kala egiñez. Igiera orregaz bedeinkapena esan gure zan.

Gaur egun, ur arteko lur-besorik eztagonez, birritanalde baterantza makurtutenda santuaren irudia. Eztakit nondik asmatu daben "egunerokoan" San





Pedroren irudiagaz egiten dana santu berari onelango meatxua egiten yakola: “Edo arrantza on bat edo itsasora botako zaitugu”. Bedeinkapena da, ez meatxua!

Bigarren gertakizuna, arrantzaleen arteko jokabidea da. Au da: euren eskubideak zainduteko Kofradi bateko kideak izanaz mayordomo edo lendakari bat aukeratuten ebela. Eta lendakari zarrak, barriari “kaxa” baten barruan emoten eutsozan kontu ta diruak. Aldi bateko gure erriaren zintzotasun eta erantzunkizunaren ezauga-

rriz alaitsu ospatuten zana. Ortik “kaxarranka” dantza gure arteraño eldu dan antzin-antziñako oitura.

Eginkizun orreikaz batera Udaletxeak omendu nai izan ditu gure kulturari buruz lan egindako iru erriko seme idazle.

Francisco Ocamica Gorostiola, zenbait idazki-artikuluz gain Lekeitioko Istoriarri buruz liburu bi argitaratu dauzana. Berak bakarrik bizirik eskuratu al izan dau 90 urtekez omenaldiaren oroigarria.⁽¹⁾





Joaquin del Valle Lertxundi Mendizabal, injenieru-maixua, Lekeitioko kultura ta bizikeraren zale bikaña, zenbait aldizkaritan berriak emon eta, dakidanez, gogotik parte artua bere alabak Lekeitioko Elizari buruz osotu eban tesisan. Joandako astean Amigos del Paisko Sociedad Vascongada komendu eban “Campillo” dagon Uriarteren Jauregian. Urtebete da il zala. Bere famili-koak artu eban Udaletxeak opatu eutson omenaldiaren oroigarria.⁽²⁾

J. Iñaki Madariaga Vidal, illabete da zendu zala. Bilbaoko Begoñan 1934an jaiotakoa. Zaragozano Unibersitatean Zuzentasun (Derecho) arloan Lizentziatua. Lekeitio erriko oituren gordetzallea, zenbait liburu ta idazkietan betirako bideratu ebazana. Bere emazte ta etxe-koek eskuratu eban Udaletxeak eskeñi eutsoen oroigarria.⁽³⁾

BENITO ANSOLA
(Munetxek euskeratua)



(1).— *Francisco Ocamica Gorostiola*. Lekeition 1920.01.22 an jaio zan. Resurrecion Azkue Jaunaren arreba Soleren eskolan egin ebazan lenengo ikasketak. Urrengo zazpi urtetan Mertzzedetako Ikastetxean amaitu eban Batxilergoa.

1936-39 ostean Valladolideko Unibersidadean iru urtez Medikuntza egiten saiatu zan. Jarraiean Salamankako Fakultatean bost urte beteta Madrid aldera jo eban San Bernardo Unibersitatean eta San Carlos Ospitalean Doktor titulua lortuaz. 1947 an Lekeition Medikuntza lanariogeta bat urtekez eutson alik eta Opozizio-leiaketa bidez. Bilbaon asi lanean 1987.07.31 an zar-saritutuz amaitu. Lekeition osagille lez egoala La Villa de Lekeitio izeneko istoria argitu eban, bai ta *Hombres de Viozcaya* (1973). *Diez ilustres en la Villa de Lekeitio* (1975) ta *Lekitio, neure jayot-erria* (1989). Orretaz gain *Tierra Vasca, Lekeitiota Academia C.M. aldizkaritako lankide lez ainbat txosten argitu ebazan.*

(2).— *Joaquin del Valle Lersundi Mendizábal*. Gipuzkoako Deban jaio etai-gesko urtarrilleko 26 an 86 urtekez il zana. Madridero Meatzetako Injenieru Dotoradunaren jabea ta arbaso bikañen odolekoa: Munibe, Peñafloida, Alfonso bere aita... Kurrikulu luzea osatu eban: Ipar Afrikan, Madriden, Saharan, Naparroan... Geologi Irakasle Naparroko Unibersitatean. Zuzendari nausia Madridero Instituto Teknolojikoan eta a. ta a. Zarsaritu ostean Naparroko Potasas de Subiza ta Potasas Catalanaseko lanakaz jarraitu eban.. Kultura andi-ko gizona. Itzaldi ugari emondakoa. Gobierno de Navarra, Eusko Ikaskuntza, R.S.V de Amigos del Paisentzat ainbat txosten teknikoak bildu ebazan.

Mª de la Paz Manso de Zuñiga andreaagaz eskondu ta lau seme ta lau birlobak itzi dauz.

Ba dauka Naparrak zer ordaindu mesedegille eskuzabal ta trebe izandakoari!

Ba dau beste idazki-lan argitaratuteko bidean, gelditu jakona.

(3).— *J. Iñaki de Madariaga Vidal*, 1934-2010. Bilboko Begoñan jaiotakoa, Zuzentasun arloan Lizentziatua. Alizia Mª Garamendi andreaagaz ezkondu ta iru seme izan ebazan. Irurogei urtekez auresarritu ezkeroztik ikerketa arloari ekin eutson. Itxaso ta Lekeitiokin zer ikusia eukena, guztiz gogokoa jakon. Liburu bi argitaratu ebazan bata Lekeitioko kaleak deritzona ta bestea Lekeitiko arrantzontzi arteko Itsasondoratzea kizenagaz.

Zenbait aldizkaritako lankide ta lekeitiar jaien barria idazki bidez emoten gogotik alegindu zan. Ba dauz beste iru idazki-lan argitaratuteko bidean gelditu jakozanak.



Goi maillako jantzigintza

Familiako istoria finkatzen dauan oialean amak eskuz josturak indartu egin euzan, bizitzaren astinaldietan tinko lotuak gera gendizan.

Amak eskuz oial zatiak ariztatu euzan puska bakoitza desberdiña zala... danak alkar osagarri...familian lez.

Amak eskuz azpildurak luzatu ebazan, azten giñanean ez zitezen laburregi geratu.

Amak eskuz austurak sarestatu zituan, biotzean arrangurazko ari solterik izan ez gegizan.

Amaren eskuek botoiak eta loturak trinkotu ebezan, bat egifiñik itxaropenik galdu ez gegian.

Amaren eskuek zati malguak josi ebezan, urteek dakarkiezan aldaketak zabalik onar gegizan.

Amaren eskuek zati ikusgarriak bordatu ebezan, bizitzak edertasunezko emariak emongo euskuazalakoan.

Amaren eskuek poltsikoak josi ebezan, barruan izaera ta oroitzapenen txanpon ederrak gordetzeko.


Amaren eskuak gelditu ziranean..nire loa zaindu eben, izar autsa nigan be izan ledin.

Amaren eskuek azti baten ariak legez inguratu ninduen, bizitza estreñatuko nebanerako eta jantzi barri bat izan negian.

Amaren eskuek ez eben bere lana alboratu...Badakit gaur egun, diran lekuan dirala, nire aldeko otoitzak josiko dabezela.

Eta nik... Nik musu emon deutsiet beneragarriak balira legez.

Patxi Otamendik.



Baserria



LURRAREN JABE

Baserria izan da euskaldunen abia. Leizetatik urten eta mendi-magaletan kokatu ziran ezkerero.

Or izan da euskalduna “lurraren eta eskubideen jabe”.

Baserriari gure Lege Zarrak itzaltasuna izan dau-tsoe eta iñok ez dauko Euskalerrian baserri bate-ra sartzeko eskubideriak: ez lapurrak (jakiña); ez agintariak: oneik alboan dagozela deitu bear dau-tsoe ugazabari urten dagian; ez epaikariak, gaizto-ari Gernikako zugatzaren aurreradeitzen joko epe baten barruan, baiña ez iñoz baserrian baitu.

Euskaldunak beti izan gara baserri bateri lotuak, gure abizenak iragartem daben lez. Gaur baserritik alboratu egin dira abizenak, baiña or daukagu gure nortasuna agertzeko bide bat, beste iñon iñok ez daukana: Gure lenengo baserriaren izena da gure abizena.. Batiko lotzen gaitu baserri batera eta bes-te abizenak iragarten dabezan baserrietara be bai.

Baiña azken-urteotan gauzak aldatzen doaz: kalea baserrira sartzen jatorku bat be lotsa barik. Etxeak etxeen gaiñean egiten dabez diru-egarriak eraginda eta gure abi ederrak, untxi-abi biurtzen joakuz.

Eta onelantxe galtzen da gure erri-nortasuna, one-lantxe galtzen da gure euskerea eta gure izakera bereizi guztiak, eta bide orreri erdel-itx baragarri bat ezarri dautsoe: “Globalizaziñoa”.

Ibarretan zuri-gorri.

Baiña gaur, dana galdu orduko, begiratu dagie-gun gure baserri ederrai eta inguruko bedar eta lorai ikuspegi zabaletan, mendi-arteko leun-uneetan.

Laster ikusiko doguz teillatu gorriak zelai orlegien erdian: Kendu txapela, euskalduna! Or daukazu benetako zure erria, Euskalerrria!

Ikuspegia! Aitzezko mendiak, ibar sakonak eta buztiak, landa orlegiak, zugazti aizetsuak, erre-kak eta errekatxuak... or bizi izan da gizaldietan Bizkaiko euskaldun isilla, lenengo edesti-aurrean, gero erromatarren aldi naiz erdi-aro luzean, naiz oraintsuago langintza edo industriara bide-etan.

Asieran gitxi izan-arren, zabaltzen joan giñan. Le-nengoak Lotina izeneko etxea egin eban, bigarre-nak Lotina Goikoa eta irugarrenak Lotina Bekoa, eta bardin Batiz abizena artu ebenak. Eta olako asko errien sorreran.

Orrelan sortu dira erri luzeak, erdian bidea dabela (ikusi argazkian Amoroto) eta uriak diranean Goi-enkale, Artekale eta Barrenkale.

Giroa aldatzen doala diño. Itxasoa 400m go-ratzen balitz, Bizkaiaren $\frac{3}{4}$ urpean geratuko litzakez.

Asierea

Ez dakigu Bizkaia asieran zelakoa izan zan. Izena be lenengoz Asturiasen agertzen da. I Alfonsoren kronikan (800n. urte-inguruan).

Ibarretan bizi ziran bizkaitarrak etxeko jaunen menpean eta Gernikako Batzarretan alkartzen zirala (Durango eta Enkarterria geroago etorriak dira) eta irudimenezkoa dan Jaun Zuria agiri da or lenengo jaun lez. Or sortu zan Jaunerria izena.

Ibiltariak baserrian geldi.

Baiña goazen barrero baserrira. Or dago gutzat danaren sustraia.

Ez da etxea, beste bagerik, ingurua dator etxe-agaz. Gizakiak naikoa arin asi ziraneiza itzi eta abereak etxean eukiten, eta basorik baso billa ibilli bagerik etxe-inguruan soloak lantzen. Ori izan zan gure iraultza nagusia. Ibiltaritza edo “nomadismoa” itzi eta baserrian bizi eta lan egiten ikastea.

Etxeak zelakoak

Lenengo egin ziran etxeak jauskorak izan ziran eta olakoarik ez daukagu: Erdian sua eta inguruan jesarlekuak....Zugatz-abarrakaz egiñak.

Geroago Bizkaian bitarriko etxeak egin dira. Arratian beean dago kortea, aurretik zurubia edo mailladia gora eta gaiñean bizilekua. Beeko abereak neguan beroa emoten dabe. Eta teillatua iru uretarakoa izaten da.

Baiña beste lurralde guztietan beean aurrean notiñak bizi dira eta gaiñean kamarea, eta atzean abereak eta gaiñen laztategia.

Ibarbengoetxe ituna.

Bizkai'ko baserriak euren berezitasunak daukez. Lurralde menditsua dan lez, baserriak ibar orlegietan eregiten dira, iñoz “lau aitz aundiren erdian” bebai.

Euria edo sirimiria eta laiñoa ugariak diralako, ituntasun bat dago errietan, lerrondoan, aretxen eta gaztañen artean eta euri-zarateak leioa jotzen dauanean, ituntasun ori sendotu egiten dau

Baiña ituntasun orreri geiago egin bear jako: Zelan? Etxe sendoak eta arrizkoak eginda, batez be barrenak. Goia ageak arrizkoak dirala, bitarteak beste gai batzukaz bete leitekez.

Lenago etxe bakoitxean sendi bat bizi zan, baiña erdi-aroran bizitza biko etxeak egiten asi ziran, “bestaldea” dauken etxeak.

Barruko bizitza ta kezakak.


Goazen baserriaren barruan dan bizitza apur bat aztertzeraz.

Uritarrak naikotu dira euren uri-bizitzeagaz eta Birjiliok (Beatus ille qui procul negotiis...) naiz Fr.Luis de Leonek(Que descansada vida la del que huye del mundanal ruido...) goratu eben bizitzara datoz barrero, batez be gure egunetan “agroturismoa” bide dala. Oneik ez da iñoz ulertuko zeintzuk diran baserriaren kezakak: Zelako egualdia egingo dauan begira egon-bearra, ura etxean ez ba dago, non? Argia nondik? Garbilekuak zelakoak? Maixua non? Abadea non? Jolasak non? Osagillea non? Kartak non? Bideak non? Trena edo busa non?

Be-maillako bizitza ori galtzea gauza samiña ete da? Urian diran aurrerapenak baserrietara eroan bear dira. Ez da orretan lan txikia egin demokrazia asi zan ezkerro gaur-arte.

**OLAZARtar
Martinek**





I zaki barriztua

Laztan bat orain lenen,
txertatu barriari
Jainkozko bizitzan;
oro ederra da-ta
izarren dizdizeraz
basoko lupetzan.

Ain zuri urten dozu...
Jainkoaren antzera
dozu irudia;
seme barria, zoaz
baserrira bidean,
larrosa zuria.

Ez dozu zer bardiñik
ez mendi gaillurretan
ez txori egadan;
arraña urez baiño
doatsuago zara
zeure Jainkoagan.

Paulin

olerkia



Maietza

Maietza, zer daukazu...?

Nork egin zaitu zu
biotz maitegarri...?
eskutu indarren bat
zu apaintzen al dabil
zelai miresgarri...?

Zelaiak, sagastiak
erne-miñetan dagoz
maietz orlegian;
baratzak atxurturik,
lorerik pitxienak
daukaz usañian.



Lore naiz basa dana
maiatzean jaio zan
eguzki argira;
orleizko izadia,
urre zuriz jantzita
egoan begira.
bere magalean.

Paulin

olerkia

Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



Ikasten

	1	8		9			3
		2			7		1
4				2			
	6		9				
	3		4	7		6	
			3			5	
			5				8
1		7			6		
3		6		9	4		

Sudoku

3	8	5	6	7	1	9	6	4	2
1	4	7	9	2	8	6	3	5	
2	9	6	5	4	3	1	7	8	
7	2	9	1	3	6	8	5	4	
5	3	1	4	8	7	2	6	9	
8	6	4	2	9	5	2	6	9	
4	7	3	8	1	2	5	9	6	
9	5	2	3	6	4	7	8	1	
6	1	8	7	5	9	4	2	3	

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

- 2010-11-22.- Pablo ATUTXA
- 2010-11-23.- Angel LARREA
- 2010-11-24.- Jose M^a ETXEBARRIA
- 2010-11-25.- Claudio BARROETA
- 2010-11-26.- Pablo ATUTXA

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2^a esk.

Ordua: Zazpita erdietan

EUSKERAZALEAK



IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Sariak irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA


ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan) zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Boga, boga
mariñela
mariñela
joan behar degu
urrutira
urrutira
bai Indietara,
bai Indietara.
Ez det,
ez det,
ez det,
nik ikusiko
zure kai ederra
kai ederra
Agur,
agur,
agur,
Ondarroako
itsas
itsaso bazterra,
itsas
itsaso bazterra.
Mariñela,
mariñela,
boga!
mariñela.



Lekeitioko portua